

Ezpainak arrainak bezala

Karlos Gorrindo



n a r r a t i b a •

erein

EZPAINAK ARRAINAK BEZALA

Narratiba, 90

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

1. argitalpena: 2015eko irailean

Azalaren diseinua:

Iturri

Azaleko irudia:

Aitor Arana

Maketazioa:

Erein

© Karlos Gorrindo Etxeandia

© EREIN. Donostia 2015

ISBN: 978-84-9109-041-0

L. G.: SS-1123/2015

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Karlos Gorrindo Etxeandia

EZPAINAK ARRAINAK
BEZALA



LEHENA

Euria dakar eta eguraldiak bat egiten du neure barru goibelearekin. Martarekin izan dudan azken sesioak abailduta utzi nau. Abailduta eta kezkatuta. Gureak hartu duen norabideak amildegirakoa du helmuga. Edo horretan nago sinetsita. Berak zer sinesten duen ez dakit. Ez diogu elkarri berbarik egiten aspaldi luzez. Eta berbarik ez egiteak, elkar saihesten ibiltzeak zuloa eragin du gure bizitzan. Zuloa eta urruntasuna. Elkarrengandik gero eta urrunago gaude, espazio bera konpartitzen duten bi ezezagun bilakatu gara, elkarri enbarazu egiten diotenak. Etxetik lanera joateak on egiten dit, lanak etxeko arazoez urruntzen laguntzen didalako. Etxetik urruntzean, arazoetatik urrunduko naizelakoan edo.

Dena den, gaur ere, burutik baztertu ezinik nago bartkoa. Egin behar dudan elkarrizketan beharko nuke arreta jarrita eduki eta ez Marta eta bion arteko azken sesioan. Baina aztoratuta nabil aspaldi honetan, eta buruan ez dut beste irudirik, gure matrimonio puskatuarena baizik. Edo puskatzen hasia denarena, behintzat. Eta barrua huts sentitzen dut, eta triste jartzen nau pentsatzeak edo, zehatzago

esateko, jakiteak, gure harreman okerra zuzentzeko biderik ez dagoela. Ez dagoela, bederen, zuzentzen ahalegintzen ez garen bitartean.

Roberto Gorosabel eskultorea elkarrizketatu behar dut eta ez dut gogorik. Eskultorea ezagutzekorik ere ez dut. Ez dakit nor den ez eskulturgintzan zer egin duen. Baina bart adorea bilatu dut, sesioaren ostean, ez dakit non, eta elkarrizketara informatuta joateko besteko informazioa jaso dut, elkarrizketan zuri gera ez nadin, elkarrizketatuak nire zaborberia kontuan har ez dezan.

Herri berekoak garelara ikasi dut. Herri txikia da gurea, denok elkar ezagutzeko modukoa, baina nik inor ezagutzen ez dudalakoan nago. Martarekin ezkonduz geroztik, Marta bilakatu zen nire mundu bakar.

Seme bakarra naiz. Gurasoak Ajangizen bizi dira. Aitak basoa du zaletasun, eta ortua. Amak pipermorroak labean erretzea. Eta ortua izateko aukera profitatu zuten, Ajangizen etxea erosi zutenean. Ortuaren aitzakiarekin etxea erosi, eta herriko etxea niretzat utzi. Eman. Oparitu. Marta eta biok bizi garen etxea.

Amak esaten dit joateko, urruntzen ari garelara elkarrengandik, lehen ez zela hori inoiz gertatu. “Lehen” dioenean, Martarekin ezkondu aurretik eta ezkondu osteko lehendabiziko urteetan esan nahi du. Lehen. Ez du ezer esaten eta dena esaten du. Arrazoi du. Baina Martak ez dit inoiz oztoporik jarri gurasoenera joateko, alderantziz. Joateko agintzen dit, bazkaltzen eta. Nik aitzakiak baino ez dizkiot jartzen baina. Amari. Lana. Bilbo. Denbora falta. Onartu egin behar

dut baztertuxe ditudala. Sebas eta Anton bezalaxe. Adiskide ditut. Umetakoak. Hauek ere gurasoek pentsatzen duten gauza bera, baietz pentsatu! Hauentzat, halere, bilatu ohi dut tartetxoren bat astegun buruzurian elkarrekin izateko. Astearte edo ostegunetan bildu ohi gara ordu pare batez txikiteoan. Txikiteoa, Sebasek eta biok. Antonek ez du alkoholik hartzen. Gaixotasun arraroa du giharretan. Muskulu-atrofia progresiboa edo. Eta ezin du edan. Ez zaio komeni. Martak gutxitu psikikoa dela uste du. Nik ezetz esaten diot. Pertsona uzkurra dela, hori baino ez. Martak ez ditu gogoko.

Buruan eta gogoan eskultorea barik, Marta. Marta gosarian, Marta lanean, Marta bazkalorduan, Marta gauean. Zoratu egin behar nau!

Save The Children gobernuz kanpoko erakundeak agindua eman omen dio Robertori eskultura egin dezan Madrilen egingo den sari banaketarako. Gobernuz kanpoko erakunde horretan lagundu dutenei omenaldia egingo omen zaie eta aktore, idazle edota politikari nazioartekoak bilduko dira ekitaldira. Aldizkariko bulegora atzo iritsi zen prentsa-oharraren bidez eman ziguten horren berri.

–Zeure herrikoa da, topatu eta elkarriketatu –agindu zidan Juan Tomasek, erredakzio-buruak.

Euria hasi du eta autoaren argi laburrak piztu ditut. Euriarekin batera egunak ere ilundu egin du. Roberto, berriz burura. Mutil edo gizon gaztea ematen du, ile kizkur-duna eta aurpegia zabala bibotez jantzia. Horixe ikusi nuen atzo iluntzean beraren biografiako zertzeladak gainbegiratzten ibili nintzenean.

Martaren irudia atzera, eskultorearenaren gainetik. Haren haserre aurpegia eta niri begiratu barik jaurti zidan biraoaz gogoratu naiz berriro, eta sutu egin naiz hamaikagarrenez: inutila halakoa! Inutila zeu, eta kontuz zer esaten duzun! Gezurrezko mehatxua nirea, inpotentziak eragindakoa, amorruren ondorio, komunikazio ezaren ezaugarri, maitasun gabeziaren... Ez dakit. Baneki! Maite ote dut berekin jarraitzeko beste? Ez dirudi. Zelan jakin! Maitasun ezitia ozpindu egin zaigu denboraren joanean, eta maitasunak barik, herrak eta gorrotoak egin dute habia gure bihotzetan. Merezi ote du aurrera honela jarraitzerik?

Zer da eskultura zuretzat? Hori da galdera, hori! Kazetaritzako lehen kurtsoko kazetari-gaiak asmatuko luke galdera hoberik, lehena izateko. Elkarrizketa sakona eta luzea, bi orrialde hartuko lukeena, argazki eta guzti, agindu zidan Juantok. Nondik hasi ez nekien eta internetez baliatu nintzen eskultorearen nondik norakoez jabetzeko. Telefono bat ere lortu nuen bertatik.

–Roberto Gorosabel jauna?

–Bai, esan.

–Arga aldizkaritik nabilkizu deitzen. Elkarrizketa bat egin gura nizuke.

–Ederto.

–Izango zenuke Bilboko bulegora etortzerik?

–Ezin, bada! Esku bete lan nabil, eta azken orduko bat dut.

–Neu joango naiz horra, bada!

–Ederto

Eskuez abila izango da, ez haatik, mihiaz.

To aurreiritzia! Tranpa bat baino gehiago jarri izan dizkidate bidean, eta ni beti jausi. Ez dakit zergatik atera dudan ondorio hori; “ederto” birritan erantzun didalako. Horra eskultorearen bekatua! Berarekin haserre nagoela dirudi!

Haserre Martarekin, norekin bestela? Arrazoaia, huseria, jakina: garbigailura botatzeko arropa zuria niki koloredun batekin nahastu izana.

Aspaldi luzean elkarri berba ziztrin bat bera ere esan gabe egon osteko lehen hitz baltsamikoak, alajaina! Baltsamo horrek ez du zauria arindu, zorne eragile bilakatu da, ordea.

Zergatik jarraituko ote dugu elkarrekin? Nire bizitzako emakumea zelakoan ezkondu nintzen berarekin. Zortzi urte iragan ostean, nire bizitzako torturazaile bilakatuta dago. Torturazaile eta etsai. Etsai ez, ezta torturazaile ere. Zer diot? Hitz egin beharko genuke, bakoitzak sentitzen duena adierazi, baina ezer aurpegiratu barik, norberaren akatsak agerian utzi barik. Ez erabili hitzak geziak balira bezala, min egitea helburu duten labana zorroztu berria legez. Baina ez dugu berba egiteko astirik topatzen. Edo ez dugu topatu nahi. Eza da gure arteko lotura bakarra, gabezia, hutsa, ezereza, hautsa. Eta ezintasun horien gainean, zimentazio horrekin, ezin ezer eraiki. Eta eraikita dagoena aluminosiak jota dago. Berba egin beharko genuke, baina ez dakit Marta horretarako prest egongo ote den. Berba egiteko asmorik edo borondaterik ere ote duen. Nigatik bai, prest nago berba egiteko eta gure bikote bizitzari bestelako

birra emateko. Bai? Prest ote nago ni neu ere horretarako? Ez dakit.

Berba egin bai, baina ez elkarri trapu zikinak aurpegiatzen hasteko. Gurea okertzen hasi zeneko lehen sintomak nabaritzean, sukaldera joaten ginen arazoa konpondu guran, eta elkarren trapu zikinak ateratzen jarduten genuen, sesioan amaitu arte. Egoera konpondu barik, okertu, horixe lortzen genuen. Eta berriz ere isilaldi luze tentsoak, elkarrenganako urruntasuna, zeharkako begiratuak eta hitzik gabeko mezu adierazgarriak eta mingarriak. Bi mamu, elkar ikusten ez duten bi mamu beltz bihurtu gara.

Ez dakit ba zer den hoberik, mamu izaten jarraitu edo elkarri aitortu ezinezko moduko biraoak elkarri botatzen jardun.

Europako Herrien Parkean geratuta nago eskultorea-ekin, baina ez dakit nik toki aproposena ote den ari duen euri jasarekin. Beltz jantzita dago euritakopean. Gizon garaia da. Gabardina beltza darama soinean eta niki beltz lepo luzea. Ilea mototsean du bilduta. Irribarrea ahoan hartu nau.

–Roberto Gorosabel jauna?

–Roberto baino ez, mesedez!

Bostekoan nabaritu dut haren eskuaren indarra. Mailua eta zizela erabiltzeko, beharko sendotasuna! otu zait, eskultoreen lanabes ezinbestekoak direla uste izanda. Eraztuna du zilarrezkoa, atzamar erakuslean: lauburua.

–Ez da arorik elkarrizketa hemen egiteko; joango gara *Eperrara*? Han izango dugu toki eta lasaitasun nahikorik hitz egiteko.

Kafe bana eskatu dugu bertara iritsitakoan. Jesarri egin gara aurrez aurre eta hitz egiten hasi gara.

Eta lehendabiziko galdera egin diot, beste hau erantsita: zer adierazi nahi duzu eskulturaren bidez? Eskulturaren bidez, hasi zait, neure baitan ditudan zalantzak argitu nahi ditut. Barruko sentsazio, estimulu eta sentimenduak kanporatzeko tresna da eskultura. Bizirik egotea da, eta galderak egitea eta ikusleei galderak sorraraztea. Eskulturaren bidez, ikusleek izan ditzaketen zalantzak argitu nahi dizkiet. Naturarekin bat egiten dut eskulturaren bitartez, eta harreman hau zuzena da eta ez dago bitartekorik. Ni eta natura gara, natura eta ni. Komunikazioa dago natura eta neure artean. Harreman komunikatiboa sortzen da gure artean.

Harreman komunikatiboa, hori da Marta eta bion artean ez dagoena. Eskultorearen hizpidetik urrunduta, haria galdu dut eta Martarekin izan dudan azken berbaldi patxadatsua gogoratzen hasi naiz. Ahaztua dut azkenengoz hitz aspertuan aritu izan ginen eguna. Normaltasunez eta elkarri ezer aurpegiratu barik gozatutakoa. Iraganeko kontuak dira horiek. Robertoren ahora begira egon naiz bera hitz egiten egon den bitartean. Begiak hara begira, gogoia neure baitara iraulia. Ezin dut haria galdu. Hitz errazekoa da eskultorea eta badaki zer esaten dabilen. Ikasgaia ikasita dakarrela ematen du. Gartsu ikusten dut azalpenak ematen, esaten duena sinetsi egiten duela, alegia. Oso adierazkorra da adierazpenetan.

Ez dut uste elkarrizketa hasteko galdera egokiena egin diodanik, halere. “Save The Children” gobernuz kanpoko

erakundeak lan bat egin dezazun agindu omen dizu, galdetu diot hurrena. Aulki ondoan duen poltsa hartu eta barruan dagoena jarri du mahai gainean. Grabagailua mahaiaren albo batean jarri dut. Etxerako lanak eginda etorri naiz, esan dit, irribarrez. Burdinazko eskultura bat da. Eskultura aztertzen hasi naiz, goitik eta behetik, albo batetik eta bestetik, guztiz interesatuta banengo bezala. Eskulturarekin zer adierazi nahi duen jakingo banu bezala. Oinarri sendo bat du eskulturak, burdinazkoa eta oinarritik hiru xafla laukizuzenek egiten dute gora, hogeitazentimetro luze direnak, gutxi gorabehera. Xaflek ez dute irudi geometrikorik erartzen, erdi etzanda baleude bezala daude edo erortzen ariko balira bezala. Xaflek zulo karratuak dituzte, era desordenatuan jarrita. Xafletako baten goiko aldean irudi geometrikoa du, zirkularra, eta zirkuluaren barruan, besoak gora zabalik eta hankak zabalik dituen panpina baten irudia dakar, puxika bat eskuan.

Eskulturari begira nagoen bitartean, neuri begira harrrapatu dut eskultorea irribarrea ahoan, eskulturaren gainean iritzirik eman dezadan itxaroten.

–Zer adierazi nahi duzu? –atera zait, zerbait esan behar niolakoan.

–Hori zeuk esan beharko zenidake. Ez dizu ezer adierazten? Ez dizu ezer sujeritzen eskulturak?

–Ez dakit, bada! Niri arte abstraktuak... zer esatea nahi duzu... Ez dut ulertzen... eta ulertzen ez badut...

–Eskultura hau ez da abstraktua, oso konkretua da. Xafla hauek gerra osteko herri baten egoera adierazten dute.

Etxe erdi eroriak, sutan daudenak, kristalik gabeko leihoak, suntsipena eta sarraskia adierazten dut eskultura honen bidez. Baina hori baino gehiago ere adierazi nahi izan dut, itxaropena, alegia, bizitza. Xaflaren goiko aldean ikusten duzun haur hori da salbatu behar duguna, txikiziotik urrundu eta etorkizun itxaropentsua eman. Izan ere, zirku-lua eta barruan dagoen haurra gobernuz kanpoko erakundearen sinbolo eta anagrama da.

Eskultorearen azalpenak entzun ostean, ulertu egin dut eskulturaren bidez adierazi nahi duena. Eta zentzua, logika aurkitu diot eta gustatu egin zaidala erabaki dut.

–Zure obra kontzeptuala da, hortaz?

–Nire obra abstraktua da, kontzeptuala, minimalista. Baina zera, nire obrak ez du definizio zehatzik. Nik egin, barruak agintzen didana egiten dut, eta erduei jarraitzea ezinbestekoa izanagatik ere, Oteiza, Txillida, Serra, Remigio, Nestor..., norberaren bidea egin behar da. Bakarra eta imitaezina izatea da artista oren helburu eta nahia. Baina eskulturgintzan dena dago eginda, beste arte mota guztietan bezala, eta guk, aurrekoek egindakoaren antzeko lanak, bakoitzaren perspektibatik ikusita, jakina, baino ez ditugu egiten.

–Plagioaz ari zarela ematen du.

–Plagio edo kopia, baina berezko ukitua emanda. Nik neuk ez dut inoiz plagiorik egin, baina ziur nago batek baino gehiagok esango duela nire obra artista honen edo bestearen berdin-berdina dela. Horrexegatik saiatzen naiz desberdin izaten. Lortzen dudana ala ez, ikusleak esan beza. Gainera,

esan behar dut nik baditudala Oteiza eta Txillidaren ome-
nez egindako lanak. Oteizarra naiz, Txillidarra naizen be-
zainbeste.

Txillida entzun eta txilioa etorri zait burura, Martaren
irudiarekin batera. Bikotean errespetua galtzen denean, agur
denari. Bakoitza bere aldetik joatea hobe. Guk ez dugu ezer
ikasi, ordea. Harri berean behin eta berriro egin dugu es-
tropezu. Ez dut gogoratzen noiz hasi ginen elkarrenganako
errespetua galtzen, elkarri direnak eta bost esaten hasi gin-
tzaizkionean, seguruenik. Ezikusiarena egiten diogu elkarri,
eta hori bada nahiko errespetu falta, batera bizi garenez gero.

Ohean batera jarraitzen dugu lo egiten. Ez dakit zer-
gatik, benetan. Ohea hotz izaten da, nahiz eta Marta ber-
tan egon. Ohe barruan arroila erraldoia dago, banatu egiten
gaituena. Nabariagoa bai, behintzat. Eta Marta berehala ge-
ratzen da lo, gainera. Edo lo plantak egiten ditu berba egi-
ten hasi ez gaitezten. Nik, ostera, gauak euli hegoak ikusten
botatzen ditut, eta bulegoan ere esana didate gero eta piura
txarragoa dakardala, neure burua uzten ari naizela, bizarra
egin gabe joaten naizela usu eta ditudan betazpiak medi-
kuarengana joateko modukoak direla. Bost kilo argaldu
naiz Marta eta bion artekoa malkarrean behera amiltzen
hasi zenetik.

–Honek bai suertea! –Sabino lankidea adarjole–. Jo
eta jo dabil gauero eta horra ondorioa –nire betazpiak sei-
nalatuz–: beste zera hura ez ezik –ahots tonu berezia eman
dio *hura* hitza ahoskatzean–, odola ere xurgatu egiten dizu,
ala, gure Martak?

Baleki! Ez ditut gogoan Martaren azken laztanak edo musuak. Zer den laztanik edo musurik ahaztuta daukat. Bera berez ez da laztanzalea, nahiko hotza da, motza, eta ez da lotsagatik, horrelakoa delako baizik. Sei hilabete darabagu honela, sei hilabete luze bezain gogaikarri eta konbentzituta nago sokak tenk egingo duela egunen batean. Gutxien espero dugunean. Martak edo nik bereizteko erabakia hartzeko besteko ausardia hartzen dugunean. Ausardia kontua da, edo beldurrarena. Bakarrik geratzeko beldurra. Gure harremanak porrot egin duela onartzearena. Eta jendearen aurrean frakasatu gisa aurkeztearena. Beldurra eta ausardiarik eza, hauek dira batera jarraitzeko ditugun motibo bakarrik. Edo bakarrik geratu nahi ez izatearena.

Robertoren solasaldiari erreparatu barik, tabernatik kanpo ikusten den magnoliari itsatsi dizkiot begiak. Halako batean, Marta ikusi dut eskaileretan behera, tabernaren aurretik pasatzen. Nora ote doa? Tabernatik atera naiz, eta Robertoren aurrean desenkusatu. Oraintxe naiz. Emaztea ikusi dut. Aurkeztu egingo zaitut.

Ez dut pentsatu izan onartuko duenik nire gonbidapena. Baina tabernara sartu da artista ezagutzera. Jesarrita dagoen aulkitik altxatu eta eskua luzatu diote elkarri. Marta, nire emaztea; Roberto, eskultore ospetsua, egin ditut aurkezpenak.

–Nahi duzu kaferik? –aurreratu zait Roberto.

–Ez, egin beharrekoak ditut, eskerrik asko.

–Geu ere lanean ari gara –erantsi dio Robertok–, eseri eta hartu zerbait –gaineratu du abegitsu.

Ni harrizko gonbidatu, bien erdian, existituko ez baintz bezala, berba egiteko aukerarik ere gabe. Ebakia hartuko duela eman du amore Martak, eta Robertoren alboan jesarri da. Eskultorea hitz eta pitz hasi da, ni ebakiaren bila noan bitartean. Amorrua eman dit Martak artistari eskaini dion arreta bereziak. Eta hau adoretuta edo, berriro hasi zaigu eskulturaren bidezko adierazpide mugagabeez mintzatzen. Berbaldiak iraun duen bitartean begiratu ere ez dit baten egin, Martarekiko baino ez du begirik izan, ni soberan banengo bezala edo. Ez dut uste Marta deseroso sentitu denik Robertoren erretolikaren aurrean, eta ni aurrean ez banengo bezala portatu delakoan nago, nire amorrurako. Damutu egin naiz Marta agurtu eta kafe bat hartzera gonbidatu izanaz.

–Barkatu, baina joan beharra daukat. Lana daukat, galtza bete. Jarraituko dugu hurrenean honekin, nahi baduzu –esan dit Gorosabelek.

–Lasai, neuk ere badut egitekorik. Bihar toki eta ordu berean, ahal baduzu.

Martak eta Robertok musu eman eta agur esan diote elkarri.

Bostekoa eman dit niri, indartsu eta sendo. Nirea bosteko ahula izan da, atzamarrez emandakoa. Harrapatua sentitu izan naiz bere esku barruan eta deseroso sentiarazi nau horrek. Bosteko egoki ematea lehen begiratura izan dezakezun inpresioa bezain garrantzitsua da aurrean duzuna begiko edo begietako izateko. Aulkitik altxatu eta neuk luzatu diot bostekoa oraingoan, neuk hartu dut eskultorearen

eskua neurearen artean, sendo, eta hurrengo egunerako hitzordua berradostu dugu, elkarrizketarekin jarrai dezagun.

Ezohiko orduan iritsi naiz etxera, bazkal orduan. Nik ez dut azken bost urteotan etxean bazkaldu, Bilbon baizik, lan ordutegiak uzten digun ordu eta erdia baliatuz, Koska tabernan. Lau lankide joaten gara bertara: Txomin, Edu, Aitor eta laurok. Etxekoak bagina bezala hartzen gaitu Koskako Miren etxekoandreak eta bazkari berezia egiten digulakoan nago, guretzat propio. Xumea bezain gozoa. Etxean sentitzen gara bertan. Etxean baino hobeto. Ni neu, behintzat, bai. Hango berotasuna eta kariñoa, hangotarren abegi on eta xamurra. Nik ez dut etxean horrelakorik ikusten. Nik ez dut etxean horrelakorik sentitzen.

Etxera sartzen ikusi nauenean, Marta ikaratu egin da, ustekabean harrapatu dut, eta bazkaldu berri. Ezkaratzeko mahai gainean, platera eta gainerako tresneria jaso gabe ikusi ditut. Marta dutxatik dator, toalla soil batez babes-tuta, bularraldetik ipurdi alderainoko toalla ñimiño batez. Eder agertu da. Liluragarri. Berari begira geratu naiz, papao aurpegia jarrita. Erdi ahaztuta neukan Marta hori. Marta sentsuala, Marta desiratua, Marta haragikoia, Marta emakumea.

–Zer egiten duzu hemen?

Deseroso, urduri, haserre egin dit galdera.

–Elkarrizketa, ez duzu gogoan ala? Bazkaltzera etorri naiz etxera.

Desenkusatu egin naiz. Norbaitek zer bait txarto egiten harrapatu eta zer esan ez dakizula geratzen zaren modu

tentel horretan geratu naiz Martaren toallari begira, titiburu gero eta nabarmenagoei so.

–Zer egiten duzu dutxan sasoi honetan?

–Dutxatzeko baimena eskatu behar dizut, ala? –amorruez, oraingoan.

–Bada zerbait bazkaltzeko? –hizpidea aldatzearren.

–Hondarrak.

Alde egin du sukaldetik eta bainugelan entzun dut ilea lehortzen. Ez dut inoiz susmorik Martarengan izan. Ez dut uste maitalerik duenik. Baina ez nuke burua egingo eta ezetz esan. Gaurkoa susmagarri egin zait. Eguerdia eta dutxa hartzen. Eta beldurtu egin naiz bat-batean.

Eta ziztada sentitu dut bihotzean. Neure hanka-sartzea ekarri dit gogora. Neure doilorkeria. Neu izan bekatari eta edonor dela uste izan. Baina nik ez nuen Karolina maite. Gau zoro bateko eroaldia izan zen. Alkoholak eragindako narrualdi ustekabekoa. Marta engainatu nuen gau batez, eta ondorioa jaso nuen denbora laburrera. Martak jakin egin zuen dena. Ez nire lagunik edo inork kanpokorik aitortuta. Ezta nik neuk ere. Nire ahotik ez zen deus aterako, gurea apurtzeko balioko zuenik. Banekien-eta Martak ez zidala barkatuko laprastada.

Sebasen urtebetetze eguna ospatu behar genuela esan zidan Antonek, Bilbon. Afal ostean El Galeon pubera hurreratu ginen eta hantxe ezagutu nuen Karolina. Karolina eder, sensual eta sekulako emakumea. Karolinak berak probokatu zuen guztia. Amaraun sarea zabaldu zuen bere begirada itsaskorraz eta ni harrapatuta bertan. Txolindu egin ei

zen nitaz. Gau bakar bateko larru jotze itsuaren ondoren. Telefono zenbakia trukatu genion elkarri, eta huraxe izan zen nire galbidea. Mezuak ziren hasierakoak, baina nahikorik ez, eta telefono deiak izan ziren jarraian. Alferrikakoak izan ziren nire erreguak. Ez zaitut maite. Ezkonduta nago. Emaztea dut eta maite dut. Gurea ekibokazioa baino ez zen izan. Ez deitu gehiago. Baina Karolinak amore eman ez. Itsu maitemindu omen zen nitaz.

Gau batean, gauerdiaz geroztik, telefono deia izan nuen sukaldean nengoen bitartean. Telefonoa logelan utzia nuen eta deia Martak jaso zuen. Telefonoz bestalde entzun zuen lehen berba *laztana* izan zen. Martak ez ei zion deus erantzun eta Karolina bere erretolikarekin hasi zitzaion. Akabua! Dena aitortu behar izan nion Martari. Negar mal-kotan entzun zidan aitorpena. Ez zidan deus esan, hainbestereinokoa izan baitzen eragin nion samina.

Eta orain neu mesfidati. Etxeko gelak hasi naiz miazten, zerbaiten bila ari naizelakoan, ezustekoren bat aurkituko dudalakoan. Araketa amaitutakoan ez naiz lasaiago geratu, aztoratuta sentitu naiz, esku-ahurrak izerditan. Ez dut inor topatu ez dut ezer susmagarririk aurkitu. Zer topatu behar nuen, bada, gizon bat gure ohean?

Martarekin egingo nuke berba. Aukera hau baliatu behar dut, ez gaurkoaz mintzatzeko, gureaz baizik, gure harreman gero eta herdoilduagoaz. Lanera joan aurretik badugu denbora, jesarri eta korapiloa askatzen hasteko. Korapiloa, inoiz eztarri inguruan izan dudana, itoarazi egin didana eta negar eginarazi ere bai, ezintasunak eraginda.

Egongelako besaulkian jesarri naiz Martak bainugelatik noiz irtengo zain. Bihotza taupadaka nabaritu dut. Zer dela eta urduritasun hau? zer dela egonezin hau? Marta nire emaztea da. Zortzi urte daramagu elkarrekin bizi izaten. Egun, ez gaude geure onenean. Baina lehen ere bizi izan dugu egoera malkartsurik, berba eginda konpondu izan duguna. Nahiz eta uste dudan konfiantza betiko galdua duela nigan. Eta portaera hau du erakusgarri.

Egia da gure arteko harremana pitzatuta dagoela, baina badugu oraindik astirik..., balego borondaterik..., nik..., maite...

Marta agertu da egongelan, aulkian zeukan gabardina hartu eta kaleko aterako bidea hartu du. Lanerakoa. Begira geratu natzaio. Poltsa bizkar aldean eseki, etxeko atea ireki eta alde egin du. Ezer esan barik. Aurpegira begiratu barik ere. Hondoratu egin naiz etzalekuan, irentsi egin nau etzalekuak, zulo beltza bailitzan. Ausardia faltagatik ez diot deus esan, beldurragatik geratu naiz kateatuta eta mihia brida-tuta. Marta, Marta, Marta.

Ez dut ezer bazkaldu, gogorik gabe geratu naiz. Ahoa lehor sentitu dut eta hozkailutik garagardo botila hartu dut. Dangada batean edan dut. Isurkinarekin batera ezintasunak eta frustrazioak irentsi ditut eta bihotzerrea izan dut bat-batean.

Hurrengo egunean, ordu berean eta toki berean Roberto eskultorea ikusi dut Eper tabernan, mahai aurrean jesarrita, kafe kikarari begira. Kafe hondarrak irakurtzen ibiliko ote da? Hau ere sorginzale ote dugu?

Marta bai, Martak gustuko du sorginetan ibiltzea. Sorginetan edo. Kafe hondarririk irakurtzen duten horien artean, ez. Ez dut uste. Etorkizuna ezagutzeko, etorkizuna irudikatzeke edo berak entzun nahi duena entzuteko joan ohi da Bilbora, Idoiarekin batera, sorginak esango diona jakitera. Idoia bai sorgina! Marta eta biok elkarrengandik urrundu ahala, Idoia bilakatu da “bikote-kide”. Harekin egiten ditu ordu gehienak eta nori zer kontatu badu Martak. Martak sekretu-kide du Idoia. Nik ez dudana. Nik neureak neuk irensten ditut, ez dut inor neureak asaskatzeko. Nahi ote dudan ere ez dakit. Zeren, azken batean, gure artekoak, Martarenak eta nireak dira, ez beste inorenak. Gure artekoak sorginari ere kontatzen dizkiolako apustua egingo nuke nik. Martak sinetsi egiten duelako. Marta sinestuna da eta ziur dago izaki goi mailako bat badagoela, eta berak, Martak berak, botere ezkutua dituela, espiritualtasun berezia, pertsona arruntek horiek guztiak zer diren ulertu ere inoiz ulertuko ez dituztenak. Eta sinetsita dago horretan.

Eskultorea ere ezpal berekoa ote da? Kafe hondarretatik begiak jaso dituenerako, bostekoa luzatu diot. Mahaitik altxatu da eta zer hartu nahi dudan galdetu dit. Ongi hezitakoa dugu artista. Ebakia, erantzun diot, bero-beroa, eta tortilla pintxo bat, asko eskatzea ez bada. Gaur gosaldu barik nator eta. Gosaldu bitartean, hitz egiten ibili gara, eguraldiaz, herriaz eta gero harira joan gara, eskulturaren gaiari heldu diogu.

–Zer moduz emaztea? –galdetu dit nire ustekaberako.

–Ondo, zelan bestela?

Ez dut hizpide horrekin aurrera jarraitu nahi izan eta grabagailua piztu dut. Materia zizelaz eta mailukadaz menperatzen da, hasi zait mintzatzen nik galderarik egin orduko. Beste lantresna asko ere badira. Nik, esaterako, rotaflexa maiz erabiltzen dut. Rotaflexa?, galde egin diot begiez. Gizon gartsua da eskultorea. Eskuz lantzen du materia, eskuak erabiliz ematen dio indar adierazitakoari. Etengabe-koa da bere hitz jarioa. Elkarrizketatzeko egokia da. Galderarik egin beharrik ere ez dago, berba egiten has dadin. Eta motorrari giltza eman dio.

Gizakia eta naturaren arteko guda da eskultura. Eskultura askatu egin behar da ezkutatuta dagoen euskarritik. Harri edo egur edo beste edozein material itxuragaberi forma zehatza emanez lortzen da hori. Borroka espiritual da, materiaren aurkakoa. Materiak milaka forma eta itxura izan ditzake, eskulturak deskubritu egiten dituenak. Garai batean, eskultura adierazpidea zen, giza irudien bidez lortzen zena. Artistak indar espresiboa nabarmentzen zuen. Gero, eskultura liberatu egin zen denboraren joanez, eta bestelako irudi eta formak hartzen joaten da. Urrundu egiten da garai batean zeukan zentzu figuratibotik.

Urrundu neu, eskultorearen haria galdua, Martarenari oratzeko. Marta obsesio bilakatu da nire bizitzan. Txarrerako obsesio, nik uste, lehen onerako zena. Gaixotasun bilakatu zait, patologia. Ez da unerik berarengan pentsatzen ez dudanik. Ezin dut ahantzi, ezin dut nire pentsamendutik baztertu. Burua hartuta nauka. Elkarrekin gaudenean, toki

eta espazio bera konpartitzen dugunean, urrun gaude elkarrengandik, eta elkarrengandik urrun gaudenean, barruan daramat.

Eskulturaren xedea, jarraitu du eskultoreak, ez da jadanik estetikotasuna edota espazioan jarriko den material baten masa fisikoa. Eskulturak espazioaren dinamizazioa bilatu behar du, espazioa bera sortu. Eskultura, bestalde, materia hustetik dator edo okupatuta dagoen masa desokupatzenetik.

Nik noizbait, nonbait entzundako berbak direla pentsatu izan dut bat-batean. Baina ez diot gauza handirik ulertu, ez dakit zertaz ari den; haria galtzeaz gain, interesa ere galtzen nabil. Aspertuxe nago eskultoreari entzuten. Neureak eta bi nabil egiten bera kontura ez dadin eta horrengatik heldu diot hurrengo galderari.

–Noiz hasi zinen eskulturarekin harremanetan?

–Ameriketan, pilotari nabilela. Ritxi pilotari eta artistaren etxean.

–Pilotari?

–Bai, zesta-puntista ibili nintzen garaian.

Ez dakit zergatik, baina elkarrizketari norabide aldaketa emanda, elkarrizketatuarekiko interesa piztuko zaidala otu zait, eskultorearen bizitzaren gaineko galderak eginda. Zesta-puntista eta Ameriketan. Nire garaiko zesta-puntistek, etorri zait burura ziplo, alberdanean ibiltzen zirelako ospea zuten eta herriko gizon askoren inbidia pizten zuten: diru asko eta emakume gehiago inguruan. Horra inbidia-
ren jatorria, horra elkarrizketaren interesa.

Elkarrizketari zure biografiaren zertzeladak erantsita, hurbilagoko bilakatuko zinateke jendaurrean, esan diot. Ederto, erantzun dit. Hitz magikoa, atek zabaltzeko erabiltzen duena, antza.

Arazoak izan ditut Juan Tomasekin, kulturako erre-dakzio-buruarekin azaldu diodanean eskultorearen biografia eskulturgintzan egiten diharduena bezain interesgarria litzatekeela publikoarentzat.

–Badakizu –erantsi dit Juan Tomasek– ezin dugula dirua xahutu interesik sortzen ez duten zertzeladetan. Eta are gutxiago kulturan.

–Interesik badu –gaineratu diot–, badakizu zuk zesta-puntak zelako inportantzia izan duen sasoi batean gure herrian.

–Baina gaur egun, ez. Garrantzia eta interesa galdua ditu; beraz, zuk zeuk ikusiko duzu zenbaterainokoa den pertsonaia horrek izan dezakeen erakargarritasuna. Eskultore bezala beharbada, baina zesta-puntista lez, zalantzak ditut. Gainera, gai hau beste sail bati dagokiolakoan nago, kirolekoari, hain zuzen.

–Baina –jarraitu dut etsi gabe– pertsonaian bertan uztartzen diren bi aurpegi dira, eta Euskal Herrian zesta-punta geure kulturaren ikur izan delakoan nago.

Amore eman du Juan Tomasek, purrustadaka, baina egiten utzi dit. Elkarrizketaz gain, beraz, egun indarrak galdua dituen zesta-puntaren gaineko erreportaje zabala ere egin dezakegula iradoki diot, eskultorearen bizitzaren iraganak ur asko eman dezakeen laranja dela iritzita.